



JOSTAILU EZ SEXISTAK AUKERATZEKO

lekeitio



Iturriak: Emaisia eta Murgibe

ZER DA JOLASA? ZER DA JOSTAILUA?

Hautzaroa, bizitzako aldi erabakigarri bat da, etapa honetan zehar bizitako esperientziak behin behineko azterna uzten dute. Gainera bizipen hauen bitartez, pertsonen rol sozialak, autoestimua, errespetua, lankidetzeta eta beste hainbat balore finkatzen dira. Umeek jolasen bitartez ezagutu eta besteekin erlazionatzen ikasten dute.

Horregatik, oso garrantzitsua da erabiliko dituzten jolas eta jostailuen aukeraketa, hauen bitartez, inguruarekin interakzioa izatea lortzen dutelako.

Jolas eta ipuinek funtzio hezitzailea dute eta arrazoi horregatik ezin daiteke elementu neutralizat hartu. Ez daude neskenzako edo multientzako diren jolasik.

Jolasek ez dute sexurik. Pertsonak sexuka bereiztea erabaki kulturala da. Jolas sexistak egungo jendartearen isla dira, hain zuzen ere, gizonezkoak-maskulino eta emakumezkoak-femenino bezala antolatzen duen jendartearen ispilu.

JOLAS ETA IPUIN SEXISTEN HELBURUAK:

- .Gizona edo emakumea izaten irakastea.
- .Genero desberdintasunak markatzea.
- .Heldu eta hauren arteko harremanak, generoaren arabera bideratzea.
- .Harremanak sexuaren arabera markatzea.
- .Gaur egungo zatiketa birproduzitzea.

JOLAS ETA IPUIN EZ SEXISTEN HELBURUAK:

- .Sexuari loturiko genero rolak ez errepikatzea.
- .Pertsona moduan, gaitasun anitzak bultzatuz, osotasunez garatzen laguntzea.
- .Estereotipo sexista eta indarkeriaren transmisioa saihestea.
- .Eredu zabal eta ez itxietan jolasteko aukera ematea.
- .Bizitzarako eredu berri bat bultzatzea ,parekidetasunean oinarrituta.

JOSTAILUAK AUKERATZEKO GOMENDIOAK

- .Jostailuak **erakargarriak** izan behar dira, behin baino gehiagotan erabiltzeko modukoak, arruntenak dibertigarrienak izan ohi dira.
- .**Irudimena eta sormena garatzen** lagundu behar dute.
- .Jostailua, umearen **adin eta gustuetara egokituko** da.
- .**Ziurra** izan behar da.
- .**Estereotipo sexistak finkatzeko ez** da erabilia izan behar.
- .**Denek erabili ahal dituzte** inolako bereizketarik gabe, eta bien artean erabiltzen badituzte kooperazio eta berdintasun baloreak barneratuko dituzte.
- .**Sexu, etnia eta kulturen arteko desberdintasunak** errespetatzen lagunduko du.
- .**Ez du indarkeriazko portaerarik bultzatuko**, kontrakoa baizik, gizarte baloreak eta pertsonalak bultzatzen lagunduko du.
- .**Publizitateak inoiz ez du eraginik izan behar norberarengan.**
- .Jostailua tresna bat da bakarrik, **garrantzitsuena jolasa** da.

**EDOZEIN JOSTAILU EROSI AURRETIK,
HURRENGO GALDERAK EGIN BEHAR DIZKIOGU GEURE BURUARI**

	BAI	EZ
Jostailu honekin denek jolas dezakete genero roletan sartu gabe?		
Jostailu hau aproposa da haurrak duen adinerako? Adinaren arabera gomendioak al ditu?		
Jostailu honekin gustura egongo da?		
Behin eta berriro jolas daiteke berarekin?		
Interesa biztuko dio? Minutu batzuetarako bakarrik eta hainbat orduan jolasteko modukoa da?		
Erraz apurtzen da? Luzaroan iraungo du?		
Jostailu honekin bere lagunekin jolastu ahal izango du era kooperatibo batean eta gainontzeko haurren berezitasunak errespetatzen ditu?		
Jostailuaren bidez haurrak irudimena landuko du?		
Erabilera anitzeko jostailua da?		
Lagunduko dio haurrari estereotipo sexistak ez errepikatzen?		
Jostailu hau nire umeekin konpartitu ahal dut?		
Kultur aniztasuna eta naturarekiko errespetua errazten duen jostailua da?		
Telebistan iragartzen al dute? Zer nolako iragarkia da? Estereotipo gabeko iragarkia da? Iragarritakoa betetzen du?		
Ba du erabilpenerako gomendiorik? Nolakoak dira gomendio horiek?		

**GALDERA HAUEN ERANTZUN
GEHIENAK BAI EZKOAK BALDIN BADIHA,
SEGURUENIK AUKERATUTAKO JOSTAILUA EGOKIA IZANGO DA.**

ADIN BAKOITZERAKO EGOKIAK DIREN JOLASAK

0-2 URTE BITARTEKOENTZAT

Soinua duten mugikorak, txintzarriak, txupeteak, haginkariak, forma eta kolore desberdineko lanparak, mantak, pilota handiak, trapuzko panpinak, panpinekin jolasteko akzesorio simpleak, ipuinak dituzten plastikozko edo kartoizko liburu-jolasak,...

2-3 URTE BITARTEKOENTZAT

Trizikloak, autoak, palak, kuboak, pieza handiko eraikuntzak, pieza handidun puzzleak (12ra artekoak), arbelak, margoak, musika-tresnak, bainurako jolasak...

3-6 URTE BITARTEKOENTZAT

Trizikloak edota gurpil txikiak dituzten bizikletak, autoak, patinak, adin honetara egokitutako eraikuntza eta puzzleak, arotz baten tresneria, panpin txiki artikulatuak, mahai jolasak, kartak, ordenagailurako joku hezigarriak, bildumak, liburuak...

6-10 URTE BITARTEKOENTZAT

Bizikletak, autoak, patinak, pilotak, sokak, uztaiak, ehungailuak, panpinak, sukaldetxoak, txontxongiloak, makillajeak, mozorroak, esperimenduak, kromoak, musika tresnak, mahai jokoak, kartak, ipuinak, liburuak...

10 URTETIK AURRERA (NERABEZAROAREN AURRETIK ETA NERABEZAROA):

300 piezara arteko puzzleak, zurezko, plastikozko edota material magnetikozko eraikuntzak, esperimendu zientifiko simpleak, muntaia mekaniko edo elektrikoak, modelismoarekin zerikusia duten jolas errezak, berbategi eta hizkuntza jolasak, futbolinako edo kirol jolasak, oro har; bideojokoak eta batez ere, trebetasun higiarazlea garatzen duten jolasak, berbategi eta hizkuntza, matematika eta ezagupenari buruzko testak... Aldi honetan, aditasun berezia jarri behar dugu bideojokoetan, bertan estereotipo sexistak agertzen baitira.

